

Jean Ybarnegaray

Euskaldunen aterpea suntsitu zuen faxista

Jean Ybarnegaray politikari baxenafarraren izena hizki beltzez pasatuko da Euskal Herriko historiara. Euskaltzale eta frantziar chauvinista izatetik nazien kolaboratzaile izatera igaro zen. Bere jarduera funtsezkoa izan zen Bigarren Mundu Gerraren atarian, funtsezkoa totalitarismoaren garaipenerako.

JOSU CHUECA

JOSE ANTONIO AGIRRE lehendakariak bere *Gernikatik New Yorkera Berlinetik pasatu*-en, ohikoa zuen baikortasunez, horrela idatzi zuen Euskal Herriko zatiketaz: “Historia inoiz ez da azaldu euskaldunen alde eta XX. mendera bi estatutan banatuta (Pirinioen alde bietan) heldzea nahi izan du. Lau lurralde (Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa) Espainiako Estatuari dagozkio, eta beste hirurak (Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherea) Frantziako Estatuari. Lagun batek esaten zidan Jaungoikoak bi aldeko gela eman zigula, sua egotekotan alde batetik bestera aldatu ahal izateko. Eta halaxe izan zen; gure aberria deuseztatu zuen gerra totalitarioak etxetik bota gintueanean, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako gure anaien euskal lurretara joan ginen babes bila”. Anaia euskaldunen babesba jaso zuten arren, beste asko aurrean izan zituzten gerrak behartuta mugaz bestaldera joandakoek. Horien artean, nabarmenena Jean Ybarnegaray dugu (Uharte-Garazi, 1885 – Paris, 1956).

Pertsonaia hau, 1914tik 1942ra, etenik gabe, Mauleko barrutiko diputatu izan zen.

Ipar Euskal Herriko barnealdeko jauntxo indartsuenetakoa zen eta Bigarren Mundu Gerra iritsi bitartean, pilotazale, euskaltzale, baina batez ere, gerlari ohien gogo chauvinista frantziarren adibide peto-petoa izan zen.

1936az geroztik, frankista zale porrokatuen islarik argiena bihurtu zen, eta horren ondorioz, Agirrek aipatzen zuen etxe bereko bigarren gelatik aritzen zen euskal abertzaleen aurkaririk eraginkorrena eta mingarriena.

Etxetik kanpo: lagun, apopilo edo etsai

Jakina denez, hegoaldeko gela erabat kiskalita geratu zen 1936-1939ko gerraren ondorioz. Horren balantzea ikaragarria izan zen: euskaldunak euskaldunen aurka borrokan eta kostata eraikitako autonomia indarrez deuseztaturik. Euskal Gobernu goiz hasi zen erbesteko ospina dastatzen. Behin-behineko porrota, behin-betiko bihurtu zen 1939ko urtarri-laz geroztik, frankistek Bartzelona eskuratu ostean, errepubli-



Ybarnegaray pilotariz jantzita. Faxismoa besakartu zuen politikari garaztarra euskaltzale eta pilotazale ere izan zen.

Jean Ybarnegaray

kanoen hondamena itzulezina egin baitzen. Horrela, egun berean eta bide igualetik hiru lehendakari erbestera abiatu ziren: Jose Antonio Agirre, Lluís Companys eta Manuel Azaña. Horiakin batera, milaka erbesteratutak zapaldu zuten *Askatasuna, Berdintasuna eta Araitasuna* goiburua zuen Frantziako Estatuak. Baina lelo ikur horretatik gutxi aurkitu zuten mugaz bestaldean.

Agintari politikoek Frantziako barnealdera jo zuten arren, mugetatik hurbil, Roussilloneko hondartzetan, txarrantxen artean gatibu sartu zituzten milaka soldadu. Euskal errefuxiatuei dagokienez, ez zen jaso Agirrek iragarritako bigarren euskal gelarik edo aterperik, “harrera zelaia” eufemismoaren azpian ezkutatzen ziren kontzentrazio-esparruak baizik. Pirinio inguruko lurraldeetan antolatzen hasi zirenean, Telesforo Monzonek, Frantziako arduradun militarra zen Fagalderekin negoziatu zuen Ipar Euskal Herrian euskaldunentzat horrelako esparru bat martxan jartzeko.

Ybarnegaray: antikomunista, antiabertzale, faxista zalea

Monzoni berehala etorri zitzaion kontrako erantzuna bide desberdinetatik: Baionako *La Presse du Sud Ouest* kazetarik, hainbat udaletatik eta, batez ere, Jean Ybarnegaray diputatu baxenafarretik. Udalen erabakiak uanean unekoak ziren bitartean, Baionako kazetaren zein diputatuaren jarrera oldartsua, Espainiako gerra zibilean zehar izan zutenaren jarraipena besterik ez zen izan. Izan ere, gerra zibilaren hasieratik frankisten alde buru-belarri aritu



Goiko irudian: alemanak eta frankistak mugan. Behean, Ybarnegarayren ideiak azaltzen dituzten hainbat egunkari zati: Ezkerrean Vichy-ko Gobernuaren ministro izendatu zutenekoa; erdian *séparatistes espagnols*-ak kontzentrazio gunetan sartuko zituela esan zuenekoa, *Paris Soir* egunkarian; eskuinean bere iritzi artikulua, *Arriba España!* izenekoa.

ziren Iparraldeko hautesi eta komunikabide gehienak, baita euskara hutsez argitaratzen zen *Eskualduna* astekaria ere. Baina portaera horretan Ybarnegaray izan zen gehien nabarmendu zen politikaria.

Ybarnegarayk gertu zuen bere ibilbidearen gailur politikoa, Philippe Petainen agindutara ministro izatea, alegia. Gorantz zihoan politi-

karia zen, beraz. Aspaldi izan zen hautatua diputatu Mauleko barrutitik –zenbaitetan botoen %96arekin– eta Frantziako Diputatuen Ganberan bera zen hizlari suharrenetako eskuin muturrekoen artean. Estreinako aldian, 1914an, independente gisa aurkeztu zuen bere burua, baina ondorengo legealdietan talde desberdinetan aritu zen. 1919tik aurrera Entente Republicaine Democratique edo Union Republicaine Democratique-ren zerrendetan joan zen, beti eskuin-eskuineko erakundeen ordezkari.

1936ko udaberrian, hala Frantzian nola Espainian ere, Fronte Popularren garaipenak izan ziren hauteskundeetan; 1933az geroztik orduan eta indar gehiago zuten faxismoaren eta nazismoaren aurkako erantzun ezkertiarra zirudien horrek. Une horretatik, ezkertiarren batasun horren porrota bilatu nahian, jo eta su aritu zen Pirinioiko bi aldeetako eskuma. Espainian, 1936ko uztailoko matxinadari ekin zion, eta Frantzian, Leon Blum-en Gobernuaren kontrako kanpaina gogorak egin zituen. Manuel Azañak, 1936ko Gerra hasitakoan Jean Richard Bloch kazetari frantziarrari aurreratu zion legez, Espainiako Fronte Popularraren suntsipenak, Frantziako demokrazia-
ren eta bere egitura errepublikanoaren hondamena ere ekarriko zuen. Ederki ondo zekiten hori Frantziako ultraeskuindarrek eta ekimen kontrairaultzaile horietan buru-belarri aritu ziren Jean Ybarnegarayren korronte-koak.

Garaztarra, antikomunista amorratua izanik, bai Frantziako Fronte Popularrari bai Espainiakoa gaitzetsi zituen, erakunde horrek ezkerrean batasuna eta indarra irudikatzen zuelako. Espainiako gerra zibila abiatu zenean, nahiz eta legalitatearen aurkako



Diputado fiña

Ibarne, Ibarne,
republiken etsai,
Eskualerrin erne
zan Ibarnegaray.

Erbetarren alde
joka behar zuala
esan-ta, bertzalde
joan da, zer azala!

Erriyaren aldun
izan bearrean
Dourceles-en lagun
nayago du izan.

Edo zentzuz antzu
gelditu al zara?
Nola zoaz faltsu
orien aldera?

Zoaz, bai, Ibarne,
Doixlande aldera
zu lakoak erne
oi diren lurrera...
Fürier-i gibela kuztera!

Diputado fiña
izan bear omen zun,
zimaurrez egiña
askoz obe gendun.

Faszistekin baltzan
dabil ezkerotik
gezur eta fartsan
ez dago oberik.

Lagun ere ez da
morroixoa baizik.
Ibarne, Ibarne!
Bai al dezu lotsik?

Euskaldun semea
libertade aurka!
Arbaso legea
darabil adarka.

Anonimoa.
Erri, 1937ko
apirilaren 24a.

* Joseba Tapiak Agur *Intxorta Maite* (Gaztelupeko Hotsak, 2001) diskorako berreskuratutako kantua.

matxinada militarra izan, berehala lerrokatu zen *frontepopulisten* etsaien lerroetan, frankisten alde alegia. Izan ere, Ipar Euskal Herrian nagusi zen iritzi publiko eskuindar eta kontserbadorearen baitan, bat egin zuten Jean Ybarnegaray, Bernard de Coral eta René Delzangles diputatuek, matxinoen aldeko jarrera sustatzeko. Delzanglesek, esate baterako, Baionako Udalean mozioak aurkeztu zituen, bertan zeuden erbesteratuak kanporatzeko, esanez Frantzia “Europako zabortege” bilakatzaren ari zela.

Antikomunismotik euskal abertzaletasunaren aurkari izatera

Frantziako Gobernuak 1936an *Croix-de-Feu* elkarte faxistak desegin zituztenean, Ybarnegaray hautatu zuten horiek ordezkatzeko sortu zen alderdi ultrasoszialistaren (Parti Social Français) buruzagi. Horrela, mitinetan eta bilera irekietan Espainiako gerraz hitz egiteko aukera ederrak izan zituen. Abagune horiez baliatuta, gero eta garbiago azaldu zen frankisten alde, eta horren ondorioz euskal abertzaletik indar errepublikanoekin bat egitea behin eta berriro gaitzetsi zuen. Pariseko Parlamentuan ere, Espainiako gerra zibilean alde errepublikanoan ari ziren guztien aurka sarritan mintzatu zen baxenafarra. Berezik, entzute-

tsuak izan ziren legebiltzar horretan egindako adierazpenak André Marty-ren kontra, Nazioarteko Brigadisten Frantziako burua, baita 1939ko otsailean Espainiatik Frantziara ihesi joandakoen kontra esan zituenak ere. Azken horientzat etengabe eskatu zuen espainiaratzea. *Ybarne*-ren arabera, aukera bakarra Hendaiatik ala Port Boutik barrena abiatzea zuten, hau da, Espainia frankistara bueltatzea.

Behin eta berriro eraman zuen auzi hori Parlamentuko eztabaidetara. 1939ko abenduan, esate baterako, Barne ministroa interpe-latu zuen galdetuz “ea oraindik luze joko zuen (erbesteratuen) auzi horrek” eta kritikatu-z kontzentrazio esparruetatik irteten ari zirela “milaka komunista, komunista gaiztoenak” eta Frantziako lantokietan sartzen ari zirela. 1914-1918ko gerratik zetorkion Alemaniarekiko gorrotoa komunismoaren aurkakoarekin ordezkatu zuen eta korrante horretako partaideak eta bere aliatuak, euskaldun gorri separatistak kasu, izan ziren bere jardun parlamentarioen akuilu eta biktima nagusiak.

1939ko udan, Von Ribentropp-ek eta Molotovek “hitzarmen germaniar-sobietarra” sinatu zutenean, Frantziako eskumak eta baita Edouard Daladierrek gidatzen zituen erradikalek ere, komunistak legez kanpo utzi zituzten. Ybarnegarayk sutsuki babestu zuen politi-



OTALA ZELAI EGUNA

maiatzaren 17a

Besteak beste, honako jarduerak gozatzeko aukera izango du bertaratzen den edonork:

- HAURRENTZAKO LASTERKETAK, 10:00etan.
- XXXI. KROS HERRIKOIA, 11:00etan. Ojala Zebaitik irten eta Urkulu urtegiari buelta emango diote korrikalariek.
- SAGARDO FESTA, TRIKITILARIAK, BERTSOLARIAK, ... 13:30etan.
- HERRI KIROLAK ZURGA TALDEAREKIN, 15:30etan.
- DANTZALDIA TXINPARTA TALDEAREKIN, 16:00etan.



Aretxabaleta Urtas

Ozailera kalea, 1. 20550 ARETXABALETA

Tel: 943 711862 • Fax: 943 711864

www.aretxabaleta.com

Idorreria

Kanta behar dut dakizun nekhea.
Holako nekerik, nehun badea?
Batak egiten omen du xixtor gogorra,
bertzeak ur mehea?
hirugarren batek, haren zortea!
erditzen du erditzen du haizea!
Gerla denborako idorreria,
aski jan gabeko ahuleria.
Lau egun jan eta ere, ez zaut betetzen
ertzearen erdia.
Pusa ta pusa banendi balia...
Alferretan alferretan guzia.
Bigarrenez noa kabinetera
chanza hobearen entseiatzera.

Ez banu sekula santan nik ezagutu
Uharteko jaun mera!
Donibanetik uda pasatzera
igorri nau igorri nau Gurs-era.
Horen erdi nindagon kokoriko
haurrik ote zitautan etorriko.
Zainak lehertu ponduan, begiak gorri
ez nexka ez mutiko.
Beldur nintzen antchuen iduriko
nindakela nindakela bethiko.
Hirugarrenez banizun ustea
garait nezakela nere nekhea.
Aspaldi jan eskas eta mehatua zen
ene bare sarea.

Bi umez izortu zaut sabelpea
etendura etendura doblea!
Haizatu dut ene malur zaharra
egun oroz biz iten dut beharra.
Uzkurtu nizan orduko atheratzen zaut
urhe mokor azkarra.
Bidarraiko jana ez duk hondarra
badik nunbeit badik nunbeit indarra!
Etsaigoa behar badut ahandzi,
othoi, Jauna, enetzat induljentzi!
Ez beita sobera gogor jaun horrentzat nik
gorde dudun sententzi.
Jana egin eta naizela jantzi
"Ibarneri Ibarneri goraintzi!"

* Nikolas Ormaetxea *Orix*-k *Euskaldunak* (1950) lanean idatzitako poema.
Orix Gursen izan zen eta bere egoeraren erruduntzat zuen Ybarnegaray.

ka hori. Geroxeago, Alemaniak Polonia inbadi-
ditu zuenean, *Ybarne* bezalako eskuindarrek
bat egin zuten Frantziak Alemaniari egindako
gera adierazpenarekin. Baina *Drôle de Guerre*
—Gerra Bitxia, II. Mundu Gerra hasi eta Fran-
tziaren okupaziora arteko denbora tartea—
amaitzear zegoela, bilakaera xelebrea izan
zuten eskuindar horiek. Izan ere frantziarren
porrot politiko-militarraren ondorioz, Paul
Reynaud gobernuburuak Philippe Petainen
eskutan utzi zuen agintea. Verdungo garaileari
egokitu zitzaion naziekin armistizioa sinatzea
eta Hitlerren aurrean amore ematea. Ybarne-
garayk, 1914-1918ko gerlari ohiak, 1919ko

Versailleseko ituna alemanekiko bigunegitza-
jotzen zuen parlamentariak, ontzat eman zuen
1940ko ekainak 24an Frantziako agintariak
sinaturiko armistizioa.

Ybarne, Reynauden eta Petainen gobernu
bietan hartu zuen parte, ministre d'Etat hasie-
ran eta Gerlari Ohien eta Familiaren ministro
gerokoan. Desegiten ari zen Frantziako Erre-
publikaren agente gorenetik gogor aritu zen
errefuxiatuen aurka; Espainiako enbaxadore
zen Jose Felix Lequericarekin batera, euskal
errefuxiatuak espainaratzeko edo atxilotzea izan
zuen helburu. Ministro izendatu berritan, argi
eta garbi adierazi zion Georges Bennac kazeta-
rari: "Litekeena da hegoaldeko mugetako
barrutietan dauden errefuxiatu katalan eta eus-
kaldun separatistak kontzentrazio zelaitara era-
matea". Beraz, 1939ko udaberrian "harrera
esparruak" Euskal Herrian paratzearen kontra
jardun zena, horien erabilpen errepresiboaren
alde azaltzen da orain. Baina ez bakarrik komu-
nistak, judutarrak edo *indesirables* sail zabalean
sartzen ziren guztiak harrapatzeko, baita bera

bezain eskuindarrak izan zitezkeen
Kataluniako eta Euskadiko abertzaleak
atxilotzeko ere. Izan ere, ez zen meha-
txu harroputzean geratu lehen aipatu
duguna. Adierazpen horiek *Paris Soir*
egunkarian kaleratutakoan, Miarritzen,
Baionan eta Donibane Lohitzunen,
izugarritzko sarekada burutu zuten eus-
kal erbesteratuen aurka: 800dik gora

lagun eraman zituzten 1940ko maiatzeko
azken egunetan Gurs-eko kontzentrazio zelai-
ra. Haien artean zeuden EAJko Agesta eta
Epaltza anaiak, Luis Arredondo, Ander Bere-
ziartua eta Jose Antonio Durañona, EBBko
Elias Etxebarria eta ELAko hainbat buruzagi.
Oso nabarmen gelditu zen gorrien aurkako

Mapa honetan
ikusten da muga
lerroak nola
zatitu zuen
Iparraldeko goitik
behera:
itsasaldean
naziak eta
barnealdean
Vichy-ren
gobernu faxista.





Goian: Alemaniako armada Hendaiako geltokian, 1940an. Erdian: PSF (Parti Social Français) alderdi ultraeskuindarraren desfilea Parisen, 1936an. Frantziako Gobernuak *Croix-de-Feu* elkarte faxistak desegin zituenean, horiek ordezkatzeko sortu zen PSF, eta Ybarnegay hautatu zuten buruzagi. Irudian eskuinaldean De la Rocque, alderdiaren sortzailea nabarmentzen da. Behean: soldadu alemanen komandantzia Hendaiaren, eraikinean nazien bandera esbastikaduna agertzen da.

jarrera, separatistengana zabaldu zuela Ybarnegarayk.

Ybarneren garaipena, demokraziaren porrota.

15 egun baino ez zeramazkien ministro lanetan ekimen errepresibo hori gauzatu zuenean, baina garaipen azkar bezain pirrikoa suertatu zitzaion. Izan ere, nazien aurrerapenak Frantziako III. Errepublikaren porrota eta bere egitura guztien hondamendia ekarri zuen egun zehatz horietan. Abagune berezi horretaz baliatuz, Gursen zeuden erbesteratu gehienek kontzentrazio esparrutik alde egin zuten, nazien errepresioaren atzaparretik ihesi. Buruzagi dezentek bigarren erbestaldira jo zuen orduan, Donibane Lohitzune, Bordele eta Marsellatik itsasoratuz; baina errefuxiatu aberrigabeko gehienak egoera alegalean geratu ziren gerrak iraun zuen bitartean.

Ybarnek, bere aldetik, Frantziako demokraziaren galbidea burutu zuen. Aipaturiko armistizioaren auzia azaldu zenean, Baudouin, Chautemps, Darlan eta Davalekin batera Petainen programa faxista babestu zuen ministro euskaldunak. Horien guztien arabera, ez zen borrokatu behar, alderantziz, naziekin kolaboratu behar zen. Horrela, nazionalsozialismoarekiko *collabo*-en aroa hasi zen. Petain Marexalarekin bat eginik, Gerlari Ohien eta Familia Frantsesaren ministro izendatu zuten garaztarra, eta honek agente guztiak Petainen esku lagatzea bozkatu zuen 1940ko uztailaren 10ean.

Demokrazia parlamentarioaren bukaeratzat jo dute bozketa hori eta horixe izan zen Ybarnegarayren eta enparauen amaiera ere. Ordurako, Frantziako Estatua nazien menpe zegoen militarki, soldadu alemanak Lilletik Hendaiaraino hedatu baitziren. Petainen agindutara zegoen Frantzia kolaborazio-

nistaren eta alemanen menpe zegoen Frantzia okupatuaren arteko muga-lerroa Uharte-Garaziko Ybarnegarayren sortetxetik pasatzen zen, eta Ipar Euskal Herria goitik behera zatitzen zuen. Jadantik ez ziren Agirrek aipatutako bi gela, hiru baizik: Hitler, Franco eta Petain faxisten eskuetan hirurak ere. Eta dena Ybarnegaray bezalako-
ei esker. ■